



TXILLARDEGI

GEZUR-AROAN

Hauteskunde bezperan gaude berriro: lehen inoiz ez, orain... astero itxuraz. Zerrendak, hitzaldiak, agintzak, kartelak, papera, hitzak, hitzak, hitzak... Sukarraldi bat («politika» omen); eta gero, agintzak ahaztu, papera zakarretara toneladaka; eta berriro ere ezintasuna, eta norkerien dantza, eta oportunisten paradisia libro.

«Hortaz, zertarako parte hartuko?»—galde, dezakete batzuek. Eta galdera hori ez da batere zozokeria. Zertarako kermesa hauetan parte hartuko?

Oso ezagunak eta finak diren aberkide batzuek beren ezezkoa emana dute; eta zenbait izen famaturen hutsunea nabarmen agertuko da ondoko egunotan. Zuzena ote da jokabide hori? Hobeki esateko: jokabide hori ote da bidezkoena hauteskundeen garaian?

Jakina: sinetsi ezina da politikaren munduan gertatzen den ahazteko gaitasuna. Edo, hobeki esateko, ezin sinetsia da zenbait politikarik erakusten duen amnesi-konfiantza. Alegia, noraino sinesten duten hauteskundeetako esanak, herriak segituan eta arras ahantziko dituela.

Oraindik ere, besteak beste, mila paretatan irakur daitezke orain dela gutxiko agintza dirdaitsu haiek: «Estatutuarekin, presoak etxera», eta halakoak. Botoak biltzeko, dena on! «Hitz bat», aski zela aldarrikatzen zutenek ere, bestetik, Madrilén dagoen impasse osoa aitortu behar izan dute, «hitz bat» haren hutsakeria nabarmen utziz.

Hauteskundeen garaia, beraz, askotan esan denez, gezurren garaia da, gezur-aroa hitzez hitz. Eta herria honetaz jabetu-ala, gora joango da abstentzioen kopurua. Denbora joan-ala, herriak ez du Sinesten. Eta hau oso larria da, nahiz ez alde guztietatik oso gauza txarra ere nahi-ta-ez. Eszeptizismo horrek bere aurpegi osasungarria ere badu-ta.

Orain botoak behar dira bildu. Eta bapatean, horretara, emakumeen eskubideak aipatuko dira bazter guztietan (emakumeak bozemaleen erditsua baitira); baina hiru astez bakanrik gehienetan. Gaizeen eskubide zapalduak aipatuko dira ere berean, baina gero segidarik gabe. Eta zaharrez oroituko dire denak, eta sekula santan zaharren etxeetara agertu ez diren horietzek ere, zaharren etxeotara joango dira, irribarrez, eta agintzaz beterik. Homosexualek, antinuklearrek, ekologistek, denek aurkituko dituzte, bazter guztietan, entzun nahi zituzten hitz horietzek. Hori miraria!

Hau guztia ezaguturik, parte ez hartzeko gogoia dator burura, dudarik ez dago. Eta horrek, hain zuzen ere oinarri egiazkoa eta funtsezkoa duenez gero, pentsarazi egin behar digu; eta sukarraldi honen barruan gaudelarik ere, uzkur jarri. Oso uzkur.

Berrogei urtez politika-bide hau hetsita egon ondoren, ordea, hauteskunde hauen mugak eta murrizta ongi ezaguturik ere, parte hartzeak ere baditu bere alderdi mesedegarriak. Eta hauxe izan daiteke garrantzitsuenak: eskaintzen diren hedabideak baliatzea, eta sistemaren mugak argi eta garbi salatzea eta erakustea. Guk dugun eszeptizismoa, berriz ere, ez da zozokeria; eta zabaldu eta irakatsi egin behar da. Eta honetarako ere, oso egokia da hauteskundeen garai hau.

Eta beste helburu bati buruz ere interesgarri zait parte

hartzea: Euskal Herrian edozer gerta baledi ere, gure pentsakera duten abertzaleen izenean pisu guztiaz hitz egin eta erabakiak har ditzaketen pertsona batzuk hautatu ahal izatea. Inork ez baitaki geroak zer ekarriko digun, eta gure herria zein kinka larritan gerta ote daitekeen halako batez.

Horretatik aurrera, bestetan ere esan dudanez, hauteskunde hauetan parte hartu beharra ez dut batere garbi ikusten.

Baina arriskuak oso sakonak dira, halere; eta orain arte horretan aipatu ez ditugun bi aipatuko ditut.

Bata hau litzateke: askatasuna eta sozialismoa, burua eta arreta Batez ere hauteskundeetan burruka eginez, lor daitezkeela zeharbidez, edo erdizka bederen, sinesten hastea. Sistemari sartu gaba, jakina, nekez bizi daiteke politikaz («animal politico» guztien amets izkutua); baina sistemaren barrutik lortu diren askatasunen eta sozialismoen lerrokada motza da: zero. Eta hauteskundeen jokoan behin eta berriz, eta beroberoan sartuz gero, herria azkenean nahasi egiten da. Legetasun guztiak baitira, azken funtsean, indar-egoerak.

Eta bestea, bigarren arrisku nagusia alegia, beste hau litzateke: partidu klasikoek bezala, guk ere hauteskundeen garaian pitin bat mogitzea, mitinak antolatzea, eta abar, eta abar; eta gero, aritmetika hutsean azterketa eroak egin ondoren, ezer egin gabe hurrengo sukarraldira arte geldigeldi egotea. Europako «demokrazietan» egin ohi den bezala.

Hitz batez: aldakuntza egiazkoak eta sakonak zinez nahi dituenak, hau guztia jakin behar du. Hauteskundeen aritmetikietan eta mitologian erortzen bagara, gureak egin du. Euskadiren etorkizuna ez baita aste zalapartatsu hauetan jokatzen.

Eta hementxe dator kezka nagusia, beraz: hauteskundeen Ondoren zer? Hauteskunde hauetan zer gerta ere, gero zer? Hauxe da gogoan izan behar dena.

Ni beldur, ordea, hauteskundeen eritasunak ez ote gaituen ikutzen.

Hau ere egin behar da, beraz; eta parte hartzea erabakia izan denez, gogoz behar da parte hartu. Dudarik ez.

Baina egia ere bai, beldurrik gabe ere bai. Lau urte joan dira Franco hil zenez geroztik. Non dira aldakuntzak? Lurren eta etxebizitzaren espekulazioa, diru-faltaz apaldu da agian pitin bat; baina ez aldakuntzak gertatu direlako. Zein lantegi edo negozio jarri da oraingoz bertako langileen eskuetan? Erantzuna ezaguna da: galera dutenak! Filtroak aurrera doaz, Franco-ren garaian baino aisa okerrago. Gudarien hilketak ez dira gelditu. Ikastolak pinturaren ere ikusi ezin dituztenek, orain, Consejo Vascongado delakoaren bitartez, muturrak sartzeko eta kontrolatzeko eskubidea izango dute (Franco-k lortu ez zuena!). Eta abar, eta abar. Hori guztia, eta beste mila gauza, salatzeke goaz hauteskundeetara.

Hori ez da dena. Badakigu. Baina txokolate horretan ez sartzea erabaki dugunok, salaketa-lana egin behar digu; eta azalpenak eta soluzioak ez dagozkigu guri, jakina, txokolatean parte hartzea erabaki dutenei baizik.

Honela baldin bada, bai.

Bestela, zinez, gure jokabideak ez luke sentidurik.